



ARKITEKTURA	2-3	ITURGINTZA	16
DIRULAGUNTZAK	4	HONDAKIN	
ETXE PASIBOAK	5	KUDEAKETA	17
ETXEGILEAK	6-7	ASEGURUAK	18
MATERIALAK	8	ESPAZIO TXIKIAK	19
AROTZTEGIAK	9	MARGOAK	20
FATXADAK	10	ZERAMIKA	21
LEIHOAK	11	BAINUGELAK	22-23
AEROTERMIA	12	SUKALDEAK	24
BEROKUNTZA	13-15		




JP PORTU
REFORMAS

**MOTA GUZTIETAKO
ERABERRITZEAK**

portu@portureformas.com
663 425 266 · ALTSASU





ARKITEKTURA EREDUAK: ITURRI ZAHARRETIK UR BERRIA EDATEN

Teknologia berriak baliatuta, mendez mende eraikuntzan erabilitako teknikak eguneratzen ari dira, geroz eta etxebizitza jasangarriagoak eta iraunkorragoak lortzeko

Arkitekturaren funtsezko definizioa bizigarriak diren espazioak egitea da, baina, zertan oinarritu azken helburu horretara iristeko? Nondik gatozen ahaztu gabe, nora goazen dute burutan arkitektoek eta horregatik, mendetan erabilitako materialak eta teknikak baliatu eta horiek garatzeko moduak lantzen dituzte. Etxebizitza bat eraiki edo zaharbertzen denean, bizitoki bat baino zerbait gehiago eraikitzen ari direla dakitelako.

roz eta gehiago hitz egiten den garaian, arkitektoek bere egin dituzte zenbait kontzeptu eta diseinu zirkularrak sortzen hasi dira. Diseinu zirkularren bidez, erabiltzaileen beharretara erraz moldatzeko gai diren eraikinak sortzea da asmoa. Horretarako, espazio eta elementu moldagarriak aukeratzen dituzte eta erabiltzaileen premiak denborarekin alda daitezkeela ere kontuan izaten dute.

DISEINU ZIRKULARRAK

Ekonomia zirkularrari buruz ge-

Materialen aukeraketan ere, tokian tokiko material naturalak (zura, harria...) lehenestea



da asmoa. Eskuragarri izateaz gain, berrerabiltzea ere errazagoa baita kasu hauetan. Ziurtagiri iraunkorrak dituzten materialak ere geroz eta gehiago erabiltzen dira eta, hala ezin denetan, teknologia berriak aliatuak izan daitezke. Horren adibide dira zementua eta hor-

migoia. Eraikuntza arloan gehien erabiltzen diren materialak dira, baita gehien azertu eta hobetu direnak ere. Teknologiari esker, konparaziora, jakin da nanokarbono partikula beltzak gehituta elektrizitatea eroateko gai den zementua lortzen dela.

AZTARNA EKOLOGIKOA

Eraikinak utziko duen aztarna ekologikoa ere proiektuaren hasierako fasean neurtu beharko litzateke. Baldintza onetan bizi ahal izateko, eraikina mantentzeko eta beharrezkoa balitz, erais-teko eta hondakinak berrerabiltzeko behar den energia kanti-

IG-ER ARKITEKTURA



Andoni IGoa 693473951
Iñaki ERdocia 647226325
Proiektu berriak, zaharberitzea,
Passive House diseinuak, egurrezko
arkitektura, fatxadaren isolamendua,
igogailuak, aholkularitza, IEE, etab.

**I DESIGNER**
CERTIFIED
PASSIVE HOUSE
DESIGNER

Erta Elizondo Arruabarrena

Arkitektura

arkiterta@outlook.es 687 060 787

Kale Nagusia 31 Exarri Arantz





**ZURE
PUBLIZITATEA
HEMEN**

948 564 275
publi@guaixe.eus
publizitatea@guaixe.eus



tatea neurtzen dute.

Ingurura egokitu eta inpaktu positiboa izanen duten eraikuntzak egitea da asmoa, gutxiago kontsumitu eta hondakin gutxiago sortzen dituztenak. Horretarako, oraingo ikuspegia aldatzea proposatzen dute: kontua ez da

ingurumenari egiten zaion kaltea murriztea; baizik eta, erabat saihestea, etxe ekologikoak sortuz. Energia berriztagarriak dira arkitektura jasagarriaren zutabea: eguzki plakak jartzea, biomasaren erabilera.... ohikoak dira gaur egungo eraikinetan. Horiekin batera, eraginkortasuna areago-

tzeko beste bideak ere lantzen dituzte: bero ponpak, aireztapen mekaniko kontrolatuko sistemak, euri ura aprobetxatzeko instalazioak... eta isolamendu termikoaren eta akustikoaren garrantzia ere azpimarratu behar dira. Ezinbestekoak dira etxean eroso egon eta energia eskaria txikitzeko.



Arkitektura

MARIASUN
ERDOZIA ULAIAR

665716857

mariasunerdozia@gmail.com Zugarreta Kalea 36 -1 Esk - ETXARRI ARANATZ



ARKITEKTOA

maria pilar bakaikoa

@mpbakaikoa_arkitektoa

650831816

Isasia industrialdea, 2 · Altsasu
mpbakaikoa@gmail.com





URTE OSOAN ESKATZEN AHAL DIRA ETXEA BERRITZEKO LAGUNTZAK

SAKANAKO
MANKOMUNITATEA
EZABU
948 464 867
LAKUNTZA

Etxeko sarbidean oztopoak kendu eta igogailua jartzeko, inguratzaile termikoa hobetzeko, berokuntza sistemak aldatu edo egokitzeko eta etxea desgaitasuna duten pertsonendako egokitzeko, leihoak aldatzeko...

Sustatzaileek duten diru sarreraren arabera finkatzen da dirulaguntzaren kopurua.

Familiako kide kopuruaren eta etxeko diru sarrera ponderatuekin duten taularen arabera (Errenta Aitorpena) finkatzen dute dirulaguntza hartzeko aukerarik baden edo ez.

ESKATZEKO BALDINTZAK

- Etxebizitza ohiko bizitoki iraunkorra izatea, ez bigarren bizitokia.

- Etxeak 20 urte baino gehiago izatea, salbu pertsona desgaituendako egokitu edo derrigorrezko arau teknikoak betetzeko baldin bada.

- Obraren aurrekontu babesgarria etxebizitzako 2.000 eurotik gorakoa izatea.

- Obrak hasi gabe egotea. Behin behineko kalifikazioa egiten denetik, obra sei hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko gehieneko epean bukatu behar da.

- Etxeak 50 urte baino gehiago duenean, beharrezkoa da EETA izatea (Eraikinak Ebaluatzeko Txostena).

- Dirulaguntza eskatzaileak duen adinaren diru sarreraren eta etxearen antzintasunaren arabera emanen da.

DIRULAGUNTZAK ZERTARAKO?

Bizitokiaren barneko obrak egiteko eta etxearen elementu komunitarioak (teilatua, eskailera, fatxada...) zaharberritzeko izaten ahal dira:

- Etxearen egitura edo funtzionamendua egokitzeko (teilatua,

fatxadak, igogailua, elektrizitatea, iturgintza,...).

- Eraginkortasun energetikoa hobetzeko eraikin osoan (isolamenduak, berokuntza sistema jarri edo aldatu, galdara edo leihoak aldatu...).

- Irigarritasuna hobetu eta trabak kentzeko (elbarriendako eta adinekoren oztopoak...).

- Bizigarritasun baldintzak hobetzeko etxe barneko obrak (bainuontzia kendu eta dutxa jartzea, hodiak eta txorrotak aldatzea...).

- Etxeetan bizitzeko egokia den azalera handitzeko (120 m² erabilgarri arte) eta etxebizitzak egiteko, lehendik dauden etxebizitza handiak zatituz.

- Indarrean dauden lege eta araudietara egokitzeko.

- Desgaitasunen bat duten pertsonentzat etxea egokitzeko dirulaguntza bereziak daude.

EUROPAKO DIRULAGUNTZAK

Azkeneko hiru urteotan Next Generation diru funtsetako laguntzei esker, etxeetako inguratzaile termiko asko berritu dira. Zoritxarrez, duela hilabete batzuk diru poltsa hori bukatu zen eta, orain, Nafarroako Gobernuak urtero eskaintzen dituen laguntzak bakarrik daude indarrean.

Dena den, 2025 urtean zehar, Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzetan ez da aldaketarik aurreikusi. Orain arte bezala, laguntza horien artean sartzen dira etxe barneko obrak, inguratzaile termikoa zaharberritzeko obrak, teilatua eta igogailuen instalazioak, beste hainbat artean.



HERRIA	ETXEBIZITZA KOPURUA	AURREKONTUA	BABESTUTAKO AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA KOPURUA
ALTSASU	127	1.827.974,59	1.825.413,51	752.434,24
ARBIZU	6	62.395,66	57.415,66	15.096,35
ARRUAZU	1	10.000,00	10.000,00	3.000,00
BAKAIKU	7	150.404,86	150.404,86	86.028,73
DORRAO	1			
EGIARRETA	2	150.404,86	150.404,86	86.028,73
ETXARRI ARANATZ	15	428.563,56	427.070,90	118.197,31
IHABAR	2	43.744,84	43.744,84	13.123,45
HIRIBERRI	17	472.308,40	470.815,74	131.320,76
IRURTZUN	74	2.277.833,50	2.277.833,50	569.000,00
ITURMENDI	93	2.793.886,74	2.792.394,08	713.444,21
LAKUNTZA	186	5.587.773,48	5.584.788,16	1.426.888,42
LIZARRAGA	1	11.874,10	11.874,10	593,71
OLAZTI	31	678.478,27	661.659,75	217.224,05
U HARTE ARAKIL	311	9.072.012,59	9.050.716,09	2.358.150,39
UNANU	1	49.940,03	49.940,03	22.473,01
URDIAIN	622	18.144.025,18	18.101.432,18	4.716.300,78
ZIORDIA	2	19.235,62	19.235,62	8.656,03
OSOTARA	1.499	41.780.856,28	41.685.143,88	11.237.960,17



ETXEBIZITZAREN GAKOA ESKAERA ENERGETIKO TXIKIA IZATEA

Badira etxe batzuk, gaur ezagutuko ditugunak, energetikoki eraginkorrak, errentagarriak, iraunkorrak eta erosok direnak; Etxe pasiboak edo *Passive House* izenekoak. Sakanan batzuk badauzkagu eta aurrerantzean eraikitzen jarraituko direla bada-kigu.

ZER DA ETXE PASIBO BAT?

Etxe pasibo baten eraikuntza *Passive House* estandarren irizpideetan oinarritzen da. Bertan, erabiltzaileei erosotasun handia ematen zaie, energia kontsumoa murriztuz, inguratzailea isolatuz, zubi termikoak gutxituz, hermetikotasun handia lortuz eta eraikina etengabeko aireztatu fluxu bikoitzeko bero berreskuragailuen bidez. Beraz, giro guztiz osasungarria duen eraikin bat lortzen da.

ZER ONURA LORTZEN DA HORRELAKO ERAIKUNTZA BATEKIN?

Etxe pasibo batean, erosotasun maila ezin hobea lortzen da giro osasungarri batean, gutxieneko energia kontsumoekin. Kontsumoa murrizteko, eraginkortasun energetiko handiko lortuz, eraikuntza-aren aurreko diseinuaren, haren gauzatze xehatuaren eta eraikinaren instalazio sistemen artean konbinatuta. Eraikinaren erabiltzaileen erosotasun higrotermikoa lortzeko, tenperatura eta hezetasun erlatiboko baldintza batzuk konbinatu behar dira eraikinaren barruan, aireztapen bero berreskuratzailer sistema baten bidez.

GAINKOSTUA IZAN DEZAKE?

Orain arte egindako eraikuntzekin lortutako esperientziarekin, eta



puntu hau beti eraikinaren erabilerara, kalitateak, azalera, eraikinaren kokapena eta abar faktore askoren mende egongo den arren, gaur egun % 5- 15 eko gaitasun izango luke eraikuntza tradizionalako etxebizitza baten aldean. Ehuneko hori gero eta txikiagoa izango da, energia eraginkortasunari dagokionez eraikuntzako araudien eskakizunak zorrotzagoak baitira.

LEIHOAK IREKI DAITEZKE ETXE PASIBO BATEAN?

Erabiltzaile batek, noski, nahi duenean ireki ditzake leihoak. Baina

ulertu behar dugu diseinatuta eta kalkulatuta dagoela erosotasun eta osasungarritasun baldintzak mantentzeko aireztapen sistemen eta eraikinaren diseinuaren bidez.

NOLA EGITEN DA AIREZTAPENA ETXE PASIBO BATEAN?

Etxe pasibo batean, aireztapena fluxu bikoitzeko aireztapen mekanikoko sistema baten bidez egiten da, beroa berreskuratzeko gailuarekin. Sistema honek erauzitako airearen beroa erabiltzen



du sarrerako airea aurreberotzeko, barnealdera bultzatua, aire fluxuen nahasketarik egon gabe.

ETXE PASIBO BATEK OHIKO BEROGAILU SISTEMA ERABILTZEN AL DU?

Gure kliman, barne tenperatura *Passive House* estandarrek ezarritako 20°C-tan mantentzeko, oso gutxi bada ere, barnetenperatura egokitzeko sistema gehigarri bat jartzea soberan ez dago, sistema txikikoa beti ere, baina guztietan ez da hautu hori hartzen, argazkiko etxea kasu.



SANTA CRUZ

MK2 ARKITEKTURA

Beheko bento 5, ALTSASU - 948 563 308

ZATOZ GURE ESPOSIZIO BERRIRA!



Altzariak • Sukaldeak • Erreforma • Sofak • Atsedena • ETXE PASIBOAK





GREMIOEN KOORDINAZIOA: AGINTERIK EZ DEN HERRIAN NAHASMENDUA

Gremioen koordinazioan aritzen diren enpresak obraren kudeaketa osoaz arduratzen dira. Giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzen dituzte eta horrela errazagoa izaten da adostutako epeak betetzea.

Puzzle baten gisara, ongi lotu behar izaten dira pieza guztiak etxebizitza bat eraiki edo erreforma bat martxan jartzen denean. Badira, agente makila hartu eta zeregin horretan gus-tura aritzen diren pertsonak, prozesu guztiaren jarraipena beraiek egitea erabakitzen du-tenak. Hala ere, geroz eta gehia-go dira buruhauste bat gainerik kendu eta zeregin hori enpresa

baten esku uzten dutenak. Es-kualdean, lanean ari diren erai-kuntza enpresa gehienek es-kaintzen dute aukera hori.

ZERGATIK JO PROFESIONALENGANA?

Sektorean ari ez den batentzat, ez da erraza izaten obra baten jarraipena egitea. Nondik hasi? Nola bete epeak? Ezustekoen



Construcciones
zaldúa
Eraikuntzak S.L.

**Obra berria - Berritze lanak - Teilatuak
Fatxadak - Industri lanak**

607 352 617 · Herriko Plaza 4 · 31830 LAKUNTZA
zaldua@construccioneszaldua.com · www.construccioneszaldua.com



aurrean zer egin? Batzuentzat kezka iturria izan daitekeena, eguneroko zeregina da besteen-tzat. Gremioen koordinazioan ari diren profesionalak urtetako es- perientzia eta ezagutza teknikoak dituzte. Obra esleitzen denetik

bukatzen denera arteko prozesu guztia kontrolatzen dute, eta bi- dean suerta daitezkeen oztopoak gainditzeko baliabideak dituzte eskura. Obra unitateak sortu, beharrezkoa izanen den denbo- ra aurreikusi eta bezeroarekin

adostutako epeak betetzen di- rela gainbegiratzen dute. Gaine- ra, giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzeko erraz- tasunak dituzte. Euren langileak ez dituztenek, sarea egina izaten dute eta badakite lan bakoitza

egiteko norengana jo behar du- ten. Baliabide materialak eskura- tzeko garaian ere, erabiltzaile arruntek baino prezio hobean eskura ditzakete.

Gremioak koordinatzeko pro-

zesuak hainbat fase izaten ditu: obra esleitzea, aurrekontu kon- trolaren neurketa, obra zerbitzuen kontratua, obra hasi aurretik eman beharreko urratsak gainbegiratzea, obraren jarraipena egitea eta az- ken emaitza ikuskatzea.



ERAIKUNTZAK
JAMSAR S.L.
948 460 254
Nagusia, 15 atikoa - ETXARRI ARANATZ
info@construccionesjamsar.com
www.construccionesjamsar.com



ERAIKUNTZA

- Etxe bakarrak
- Energia-hobekuntzadun sistemen bitartez egindako birgaitzeak
- Industria nabeak

EZKARATZAK BERRITZEN DITUGU

- Igogailuak jartzea
- Fatxada eta teilatua berritzea



ZER ETA NON JARRI JAKITEAK EMATEN DIO BEREZITASUNA

Tradizioa eta modernitatea uztartzeko apustua egin dute diseinatzaileek: material iraunkorak lehenesten dituzte, baina estetika zainduz, konbinazio berriak sortzea proposatzen dute

Materialak ongi aukeratzen jakitea izan daiteke arrakastarako gakoa: eraikin edo gela arrunt bat besteetatik bereizteko sekretua. 2025a urte iraultzailea izanen da etxerako materialen joerei dago-kienez. Tradizioa eta modernitatea uztartzeko apustu sendoa egin dute diseinatzaileek. Aholkua argi dago: ausartu eta nahastu.

Harri naturala. Aspalditik erabili izan da etxebizitzaren kanpoalde zein barrenean eta badirudi, datozen urteetan ere indartsu datorrela joera hau. 2025ean harriak

leku nabarmena hartuko du etxebizitzaren diseinuan; bere forma gordinenean eta ez hain landuan. Kareharriz edo marmolez estalitako paretak aukera paregabea izanen dira naturarekin bat egin nahi dutenentzat.

Zura. Gure eskualdean antzina-ko etxeetan zein berriki eraikitakoetan, gehien erabiltzen den materialetako bat da zura. Garai batean, kolore argiak nagusi izan badira ere, gaur egun, tonu ilun eta sakonak indartsu datoz. Altzarietan, egituretan, baina apain-

garri bezala ere bai. Geroz eta gehiago erabiltzen dira zurarekin egindako diseinuak paretetan.

Terrazoa. Material apala izatetik, ukitu berritzailea eta bakarra bi-latzen dutenen aukera izatera pasa da. Gainera, material gogorra da eta mantentzeko erraza.

Material birziklatuak. Jasangarritasuna ez da aukera bat, behar bat baizik. Horregatik, birziklatu-tako materialak protagonismoa hartzen ari dira. Berreskuratutako plastikoz egindako altzarietatik hasi eta hondakin industrialetatik sortutako paretan estalduretaraino, material horiek espazio berritzaile eta ekologikoak diseinatze-ko aukera ematen dute, estetikari uko egin gabe.



akier

ERREFORMAK

ERREFORMAK • SUKALDEAK
KOMUNAK • TEILATUAK • TERRAZAK
FATXADAK • MANTENIMENDUA

636 459 819 • 630 341 926

VICTOR RUIZ ASKARGORTA

Igeltseritzako
konponketa
txikiak

660 091 476



Zumurdiñeta Ind. Eremua, 6 • 31820 Etxarri Aranatz • Nafarroa



METALA: NAHI BESTE MOLDA DAITEKEEN MATERIALA

Material moldagarria, jasangarria eta iraunkorra da eta, horregatik, eraikuntzan, industrian, dekorazioan... bere tokia egina du.

Burdina, aluminioa, brontzea... dituzte langai eta metal horiek bezain moldagarria da beraien jarduna. Eraikuntzan, industrian, dekorazioan... erabiltzen dira aroztegi metalikoetan sortutako piezak. Garajeko ate edo baranda batetik hasi eta eraikuntzako egiturak sortzeraino, neurri egindako diseinuak sortzeko gai dira.

ERAIKUNTZAN

Altzairua materia ezin hobia da eraikuntzarako: erabilera aldetik aukera ugari eskaintzen ditu. Asko ikertu da material honen inguruan eta horregatik, ezaugarri desberdinetako altzairuak aurki daitezke merkatuan. Jasan beharko duen zamarena eta lortu nahi den emaitzaren arabera bata edo bestea aukeratzeko modua izanen dute bezeroek. Ez da ahantzi behar, altzairua material jasangarria dela, guztiz birziklagarria. Gainera, aurrefabrikatutako egiturak erraz muntatzen dira eta azkar lan egiteko aukera ematen du. Gastuak murriztu eta sortu-

tako hondakinak ere beste eraikuntza mota batzuetan baino gutxiago izaten direnez, eraikuntzan kontuan hartu beharreko materiala da.

GARAJEKO ATEAK

Garajeko ateen bueltan lan ugari izaten dute aroztegi metalikoek. Ate bat edo beste aukeratzea ez da nolanahiko erabakia izaten, etxebizitza askotan gehien erabiltzen den sarbidea izaten delako. Segurtasuna da kasu honetan hitz gakoa, baina erosotasuna eta estetika ere ez dira alde batera utzi behar. Aroztegiek punta puntako teknologia erabiltzen material arin bat nahi beste moldatu eta egokitzeko modua aurkitu dute. Gainera, automatizazioa gehitu eta segurtasunari, erosotasuna gehitu diete. Erabiltzaileen beharretara egokitu ahal izateko hainbat aukera eskaintzen dituzte: alboetara irekitzen diren ateak, ate sekzionalak, gidaridun ateak... garajearen altuera eta zabalera kontuan hartuta, espazio irekiak sortzeko joera egon da azken urteetan, baina batzuetan espazioak mugatu nahi izaten dira. Paretak edo pladurak erabili ordez beirate bat jarrita, argitasuna galdu gabe espazio bitan banatzea lortzen da. Gainera, batzuetan sistema horiek ez dira finkoak izaten eta behar-

zio horretara hobekien egokitzen dena aukeratu ahal izanen dute bezeroek.

BARANDAK ETA ITXITURAK

Aroztegi metalikoek egiten duten lanaren beste bereizgarritako bat dira barandak eta itxiturak. Erresistentzia handiko materialak erabiltzen dituztenez, egitura sendoak eta iraunkorrak sortzen dituzte. Gainera, ez dira arras garestia izaten eta errazak dira garbitzeko eta mantentzeko. Oinarrizko diseinuak jarri edo pieza bakarrak ere eskaintzen dituzte. Arotzen lanak, artisau lanetik ere badu eta, hala, etxebizitzaren bereizgarriak izan daitezkeen diseinuak sortzeko gai izaten dira.

BARNE DISEINUAN ERE BAI

Espazio irekiak sortzeko joera egon da azken urteetan, baina batzuetan espazioak mugatu nahi izaten dira. Paretak edo pladurak erabili ordez beirate bat jarrita, argitasuna galdu gabe espazio bitan banatzea lortzen da. Gainera, batzuetan sistema horiek ez dira finkoak izaten eta behar-



rraren arabera bi espazioetako bat ireki edo ixteko aukera eskaintzen dute. Sukaldea eta egongelaren arteko banaketa egiteko, adibidez, baliagarria izan daiteke. Berez nahiko iluna den espazio bat argitzeko ere erabili daitezke beirateak. Paretak bota eta bere ordez kristala eta aluminioa era-

bilita egitura bat osatzea irtenbidea izan daiteke. Erabiltzen den kristal mota kontuan hartu beharko da kasu honetan. Gardentasun mailaren arabera, argi kantitate gehiagori edo gutxiagori sartzen utzi eta intimitate gehiago edo gutxiago izanen da lortuko dugun emaitza.

LEGARBE
ERAIKUNTZAK S.L.
SUSTAPENA-ERAIKUNTZA-SALMENTA



**BI LOGELAKO
ETXEBIZITZAK,
TRASTELEKUA
ETA GARAJEAREKIN
LEHEN KALITATEKO
MATERIALAK**

**6 ETXEBIZITZA BERRIREN ERAIKUNTZA
LASTER ALTSASUKO ERDIGUNEAN**





GARBITU, PINTATU ETA BERRIKUSI



Etxearen barnealdea garbitzeko ohitura badugu ere, maiz ahazten dugu kanpoaldea ongi mantentzea zeinen garrantzitsua den

Etxearen aurpegia da fatxada, kanpotik ikusten den lehenbiziko gauza, baina baita zainketa handiena behar duena ere. Noizbehinkako zaharberritze lanak garrantzitsuak badira ere, mantentze egokirako, maizago zaintzeko ohitura ere hartu behar da.

Lehenik, garbiketa sakonak egi-
tea ezinbestekoa da. Izan ere,
hautsak eta keak zikinkeria pilatzen
dute, eta euriak kalterik besterik
ez dio egiten. Garbiketa sakone-
kin edozein kutsatzaile kenduko
dugu, eta fatxadako akatsak iden-
tifikatzen lagunduko digu; pitza-
durak, gaizki zigitatutako junturak...
horrela, horiek konpontzeko
aukera izanen dugu.

Bigarrenik, pintura kapa berriak
eguzkiak sortutako ondorioak
estaliko ditu, eta babesa emanen
dio kalteen aitzinean. Kontuan
izan pinturak berezia izan behar
duela, kanpoalderako aproposa.
Horrekin batera, fatxada inper-
meabilizatzeak eta ongi isolatzeak
eragin handia izanen du gure
egunerokoan.

Azkenik, teilatuko hodiak eta
zorrotanak erreparatu eta garbi-
tu behar dira. Izan ere, fatxade-
tako intzidentzia ugari buxatuta-
ko hodian ondorioz gertatzen
dira. Etxebizitza naturatik hurbil
dagoen lekuetan bereziki, hostoek,
adarrek eta zikinkeriak traba han-
dia egin diezaiokeke uraren zir-
kulazioari.



alaldaba S.L.
reformas y rehabilitaciones

Estaldurak eta etxe-aurreak
Etxebizitzak
Eraikuntza berria
Igogailuak eta atariak





OZTOPOA EDO SARBIDEA IZATEAREN ALDEA

Kontsumo energetikoan eraginkortasuna eta kanpoko zarata barnera ez sartzea lortzen da egoera txarrean dauden leihoak aldatuta

Ez da gutxietsi behar leiho batek etxebizitza batean izan dezakeen eragina. Energiaren % 10 20 inguruk leihoetatik ihes egin dezakeela kontuan izanda, tentuz egin behar da aukeraketa. Leihoen materialaren eta muntaiaren arabera eraginkortasun hori aldatzen dela jakinda, komeni da hainbat aholku kontuan izatea.

Egunetik egunera, geroz eta hermetikoagoak dira jartzen diren leihoak. Egituraren % 20 perfila da eta % 80 beira, baina lehenengo bigarrena bezain garrantzitsua da: egoera txarrean dagoen perfilak ez duelako airearen sarbidea oztopatuko. Emaizarik onenak lortzeko beiraren kalitatea eta teknologia (mota, lodiera, aire

kameraren lodiera...), markoaren materialaren kalitatea, leihoa itxi eta irekitzeko sistemak... kontuan hartu behar dira. Horretaz gain, leihoaren instalazioa ongi eginda egotea funtsezkoa da, beira eta markoa ongi lotuta egotea kasu, infiltrazioak ekiditeko.

Leiho bakoitzak duen eraginkortasun energetikoaren etiketa lagungarria izan daiteke aukeraketa egiterakoan. Etiketa horiek sailkapen bikoitza dute: letra bidez berogailuen kontsumoarekin

lotutakoa (A eraginkorrena eta G eraginkortasun txikiena duena) eta izarren bidez kristalaren eguzki faktorearekin eta klimatizazioaren kontsumoa ardatz duena (**eraginkorrena eta *eraginkortasun txikiena). Erabiltzen den materialak ere badu garrantzia:

Garai batean egurrezko leihoak ziren ohikoenak eta gaur egun ere ausarki jartzen dira. Isolatzaile onak izateaz gain, estetikoki ederrak dira. Hori bai, mantentze lana eskatzen dute.

Aluminiozkoak tenperatura aldaketekiko iraunkorrak dira eta hainbat koloretan margotu daitezke.

PVC leihoak isolatzaile termiko eta akustiko bikaina direnez, toki hotzetan erabiltzen dira.

Arrazoi estetiko eta funtzionalak tarteko, **leiho mistoak** gero eta gehiago erabiltzen dira. Teilatuetako leihoetan, konparaziora, barnetik egurrezkoak eta kanpotik aluminiozkoak diren leiho mistoak dira nagusi.



**LEIHOAK, ATEAK, BALKOI
ETA TERRAZEN ITXITURAK**



*Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea*

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

ERAKUSKETA IRURTZUNEN



KANPOKO AIRETIK DATORREN ENERGIA GARBIA DA



ere. Jarraian, energia garbi hori erabiltzeko eskaintzen dizkizun onurak ezagutu ditzakezu:

ENERGIA AURREZTEA

Aeroterminarekin % 50-75 aurrez-ten duzu (etxebizitzaren kokape-naren arabera) berokuntzan, hoztean eta ur bero sanitarioan.

INSTALAZIO ERRAZA

Geotermian ez bezala, ez da beharrezkoa zulaketa bat egitea luraren tenperatura ateratzeko. Beraz, instalazioa sinplifikatzen duzu.

BATERAGARRITASUN FOTOVOLTAIKOA

Bero ponpa aerotermikoa funtzionarazteko behar den energia elektrizitatea da. Plaka fotovol-taikoekin osa dezakezu instalazioa, eta zure kontsumoa are gehiago murriztu.

KONFORT TERMIKOA

Aeroterminia instalazio batekin erosotasun maila askoz handia-goia lortzen duzu zure etxebizitzan kontsumo baxuarekin.

ALTERNATIBA IRAUNKORRA

Energia garbia da, eta ez du ma-terial erregairik erabiltzen. Ho-rrela, murriztu egiten ditugu at-mosferara isurtzen diren berote-gi efektuko gasak.

Aeroterminia, berotzeko, hozteko eta etxeko ur beroa sortzeko kanpoko giroaren tenperatura erabiltzen duen energia mota bat da.

Hori, tenperatura hartzeko gai den bero ponpa bati esker egiten da, nahiz eta oso baxua izan, eta etxean dugun igorpen sisteman behar den tenperaturara egoki-

tzeko gai dena. Horretarako, hainbat elementu edo instalazio erabiltzen ditu, hala nola zoru erradiatzailea, erradiadoreak edo fan coil.

ZERGATIK INSTALATU AEROTERMIA?

Aeroterminaren abantailak ugariak dira. Bai zuretzat bai zure etxea-rentzat, baita ingurunenarentzat

ORBEL
TXIMINIAK

BIOMASA INSTALAZIOAK (EGURRA-PELLET):
GALDARAK, TXIMINIAK, ESTUFAK

640 29 47 89 - 623 16 54 03
INFO@ORBEL.COOP | WWW.ORBEL.COOP

- ALTSASU -

OLATUKOOP LACUNZA

GALDARA INSTALAZIOA

ESTUFA HIBRIDA PELLET EGURRA



NOLA APROBETXATU BEROA GEHIEN?



Egur berogailuak dira etxe bat berotzeko modurik merkeenetako eta abegikorrenetako bat, baina askotan ez da berogailuaren potentzial guztia aprobetxatzen. Gaizki erabiliz gero, beroak azkar ihes egin dezake edo egurra ez da modu eraginkorrean pizten, erregai kontsumoa handituz eta konfort termikoa murriztuz.

MANTENDU BEROGAILUA ETA TXIMINIA GARBI

Tximinia zikin edo kedar metatu batek beroaren eraginkortasunari eragin diezaioke, eta sute arriskua areagotu.

Gomendatutako garbiketara:

- Kendu errautsak aldizka, eta utzi geruza txiki bat bakarrik, errekontzari laguntzeko.
- Garbitu kristala oihal heze batekin edo berogailuaren errauts

finarekin, kedarra kentzeko.

- Aztertu tximinia urtean behin gutxienez, buxadurak saihesteko.

HOBETO BANATU BEROA ZURE ETXEAN

Beroa gela bakar batean gera ez dadin, metodo hauek erabiltzen dira:

- Erabili berogailu haizagailuak: Sortutako beroarekin funtzionatzaren dute, eta aire beroa bultzatzen laguntzen dute elektrizitate berri gabe.
- Sabaiko haizagailuak alderantziz instalatzen ditu: aire beroa behe-rantz bultzatuko dute, zirkulazio termikoa hobetuz.
- Jarri aireztapen saretak hormetan, beroa beste gela batzuetara banatzeko.

- Ateak zabalik eduki, bero fluxua errazteko.

ISOLAMENDU ON BATEKIN BEROA GALTZEA SAIHESTEN DA

Beroak azkar ihes egin ez dezan, ziurtatu zure etxea termikoki ondo isolatuta dagoela.

Gomendatutako neurriak:

- Gortina termikoak leihoetan, bero galera murrizteko.
- Ate eta leihoetako burleteak, aire korronteak zigilatuz.
- Alfonbra lodia, beroa lurrean ez barreiatzeko.

Datu interesgarria: Etxe bateko beroaren % 30 ere gal daiteke leihoak eta ateak ondo zigilatuta ez badaude.



50

URTE GUREKIN

LACUNZA

lacunza.net

in f i o

@lacunza.natural.comfort



SU GARREK BEROTZEN GAITUZTENEAN

Hainbat alderdi hartu behar ditugu kontuan tximiniarako egurrik onena zein den erabakitzeke orduan. Izan ere, egur berogailu batekin berotzearen abantaila asko ez dira ikusten egur mota egokia erabiltzen ez bada. Egurra da gure herrialdean gehien erabiltzen den bioerregaietako edo biomasa naturalaren produktuetako bat. Mendietatik ateratzen den ia egur guztia, koniferoena zein hostozabalena, energia sortzeko erabiltzen da, batez ere etxeko eta industriako beroa sortzeko.

Zure tximiniarako egurra aukeratzeko, funtsezkoa da hainbat alderdi kontuan hartzea. Lehenik, hezetan gutxiago egur lehorra aukeratzeko, horrek errekontza eraginkorra bermatzen baitu eta ke gutxiago sortzen baitu. Gainera, egur gogorak, haritza adibidez, aukera hobea izaten dira, egur bigunak baino ke gutxiago botatzen dutelako. Ziurtatu egur zatien tamaina berokuntza ekipora eta eskuragarri dagoen espaziora doitzen duzula, eta egurra leku lehor eta ondo aireztatu batean biltegiratzeko.

TXIMINIA MOTA (IREKIA EDO ITXIA)

TXIMINIA IREKIA:

- **Estetika:** tximinia irekiak itxura tradizionalagatik eta atmosfera atsegina sortzeko gaitasunagatik preziatzen dira. Ikusmenaz eta suaren soinuaz gozatzeko proposak dira.

- **Bero erradiatzailea:** berokuntza eskaintzen dute, batez ere bero erradiatzailearen bidez. Hala ere, bero gehiena tximinian zehar galtzen da, eta, beraz, ez dira oso eraginkorrak berokuntzari dagokionez.

- **Egur kontsumo handiagoa:** eraginkortasun txikiagoa dutenez, tximinia irekiek egur gehiago behar izaten dute sua piztuta mantentzeko.

- **Kea eta errautsak sortzea:** Kea eta errauts gehiago sortzen dute tximinia itxien aldean, eta horrek garbiketa maizago eskatzen du.

TXIMINIA ITXIA:

- **Eraginkortasuna:** tximinia itxiak eraginkorragoak dira berogailuari dagokionez, gelan bero gehiago



go atxikitzen dutelako eta tenperatura hobeto kontrolatzeko aukera ematen dutelako.

- **Segurtasuna:** segurtasun handiagoa eskaintzen dute inguruko sua eta txinpartak isolatzean, ustekabeko suteak izateko arriskua murriztuz.

- **Egur gutxiago kontsumitzen da:** eraginkortasun handiagoa dutenez, tximinia itxiek egur gutxiago behar izaten dute tximinia ireki baten antzeko beroa emateko.

- **Kea eta errauts gutxiago** sor-

tzen dute, eta horrek garbiketa eta mantentze lanak errazten ditu.

HEZETASUNA/EGURRA LEHORTZEA


Eguraren hezetasunak berebiziko garrantzia du tximinien, berogailuen eta egur berokuntzako sistemen errekontzaren eraginkortasunean eta segurtasunean. Moztu berri den egurrak, "berdea" izenez ezagutzen denak, hezetasun ehuneko handia izaten du normalean, eta % 50etik gorakoa izan daiteke. Hala ere, errekontza eraginkorra eta garbia izateko,

funtsezkoa da egurraren hezetasun edukia maila optimora murriztea, % 20tik behera.

Horretarako, egurra toki lehor eta ondo aireztatu batean biltegiatzea gomendatzen da, tokiko baldintzen arabera alda daitekeen aldi batean. Lehortze prozesu horrek hainbat hilabete edo urte behar izan ditzake, zur motaren eta lehortze baldintza espezifikoaren arabera. Aldi horretan, garrantzitsua da egurra hezetasunetik babestea, lurzorarekin kontaktuan ez dagoela ziurtatuz eta euriaren eta elurraren eraginpean egotea saihestuz.



ORLEGHY
-RENOVABLES-
Biomasa galdarak
Autokontsumorako instalazio fotoboltaikoak
Estufak eta tximiniak
Geotermia eta aerotermia
Pellet salmenta online
Instalazioa eta zerbitzu tekniko ofiziala



Egur gasifikazio galdarak
%90 baino efizientzia altuagoa
Piztutze automatikoa
Dirulaguntzen kudeaketa
(deskarbonizazioa 2025 eta errenta aitortpena desgrabazioa, 4.000€ eta totalaren %20a arte)

948 562 604 · 603417554 · Gipuzkoa kalea, 17 · Altsasu
info@orleghy.com · www.orleghy.com



EgurRRE
ETXERA ERAMATEKO EGURRA
Leña a domicilio

Kalitatezko egurra eta pelleta

ETXEKO ATERAINO

662 11 77 45



Lakuntza gasoil
Ettxera eramateko gasoleoa

BEROKUNTZA NEKAZARITZA AUTOMOZIOA



gasoleoslakuntza.com
948 576 016- 609 421 680
- Alberto Iriarte -



EGURDIAN
sutarako egurra

608 57 03 57

etxea berotzeko ezinbestekoa



GASOLIO BEROKUNTZA: ENERGIA EKONOMIKOA ETA SEGURUA

Normala da zalantzak izatea gure etxerako berokuntza sistema egokiena aukeratzeko orduan. Horregatik, etxeetan ohikoagoak diren galdara eta berogailu mota batzuk azalduko dizkizugu, baita gasoliozko berokuntza sistemen funtzionamendua eta abantailak ere.

Gasolio galdarak. Gasolio galdarak berokuntzarako eta ur berorako erabil ditzakegu, edo berokuntzarako soilik. Bi motatako gasolio galdarak daude: bat batekoak (unean ura berotzen dutenak) eta metatzekoak. Biek prezio nahiko baxuak izaten dituzte beste berokuntza sistema batzuekin alderatuta, oso bizitza erabilgarri luzea dute eta ia ez dute mantentze gasturik. Abantaila horiekin,

berokuntza mota merkeena al da?

GASOLIO BIDEZKO BEROKUNTZAREN ABANTAILAK:

- Espazio zabalak berotzeko unean, bitartekorik bizkorrena dela uste da; izan ere, erregai hori indartsuagoa da eta berogailuaren errendimendua handitu egiten da. Gauza bera gertatzen da familia bakarreko etxebizitzetako ur beroarekin.

- Gasolio galdarak balio bizitza luzeagoa izan ohi du, gasolioaren errekuntzak ekipo horiek mantentzea errazten baitu. Horrek, epe luzera, konponketak saihesten ditu, eta, ondorioz, aurrezteko aukera.

- Gasolioarekin funtzionatzen duten ekipoak nahiko seguruak

dira, tenperatura baxuan funtzionatzen dutelako eta leherketak izateko arriskua murrizten delako.

- Erregai mota horren abantailen artean nabarmendu behar dugu gasoliozko berokuntzak energia gutxi erabiltzen duela eta gas kutsatzaile gutxiago isurtzen duela, eta horrek, zalantzarik gabe, asko laguntzen dio ingurumenari.

- Gasolio berokuntzaren instalazioa oso erraza da, eta funtzio hori duten deposituak edozein etxetan instala daitezke.

- Gasolio galdaren prezioa beste galdara mota batzuen baino txikiagoa da. Berogailu mota hori gomendatzeko arrazoietako bat gasolioa erraz lortzea da.



MANTENIMIENTOS
NAVARRA

Gas galdarak - Gasoil galdarak - Aerotermiak
Pellet/Biomasa - Deskaltzifikatzaileak - Termoak
Mantenimendu kontratoak egiten ditugu



ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

Plazaola ind., D etxadia, 8 | 31195 Aizoain (Nafarroa)
948 306 161 - 606 005 813 | www.navarraconservacionymantenimientos.com





BEROGAILUEK MANTENUA BEHAR DUTE

Etxebizitza berotzeko, berogailua piztea ez da aski; berokuntza sistema egoera onean dagoela ziurtatu behar da

ZERGATIK GARBITU BEHAR DA ZIRKUITUA?

Berokuntza sistemaren mantentze egokia urte osoan ezinbestekoa da, hilabete hotzetan funtzionamendu ona izateko eta gerta daitekeen edozein aberia saihesteko. Hainbat onura ekartzen ditu, besteak beste: beroa hobe eta modu homogeneoan hedatzea, uraren usteltzea eta sedimentuen metaketa ekiditea, energia gutxiago kontsumitzea eta ur ihesak edo bestelako arriskuak saihestea.

NOLA GARBITU ETA PURGATU ERRADIADOREAK?

Gomendagarria da garbiketa

udazkenean egitea, berogailua piztu aurretik. Hautsa erradiadorearen barnean pilatzean, aire beroaren irteera oztopatzen du, hortaz, erradiadoreentzako be-
reziak diren eskuilak oso erabilgarriak dira barnealdea garbitzeko; erradiadore itzali eta hotzarekin erabili behar dira, hutsune eta tarteetatik pasatuz. Kanpotik, berriz, xurgagailua pasa daiteke gaineko eta azpiko aldeak garbitzeko.

Ondotik, purgatzeko txanda heldu da, eta hori ere piztu aurretik egin behar da. Erradiadoreen zirkuitu eta hodiedan aire burbuilak pilatzen dira, eta horren ondorioz, gutxiago berotzen du eta fakturak garestitzen dira.



Baina purgatzeko prozesua erraza eta azkarra da; erradiadorearen giltza ireki eta erortzen den ura bildu behar da.

ZIRKUITUA GARBI MANTENTZEA

Hiru edo lau urtetik behin, beroketa sistemak garbiketa sakonagoa behar du ongi funtzionatzeko.



ALEJO
ITURGINTZA

ISMAEL PEREZ
San Franzisko kalea, 2
Olaizti
680 294 842
fontanerlaalejo@hotmail.com

Iturgintza

Energia berriztagarriak

Galdaragintza

Komunetako eta sukaldetako berrikuntzak

Gas berogailuak

Komunetako altzariak

Gasoil depositoak

AITOR
GARTZIA
ITURGINTZA

610 623 172

zitek

mota guztietako
desataskoak
ur-ihesaldien
detektagailua

671 618 999 · 671 618 880
ALTSASU
info@zitek.es · www.zitek.es

ko. Horretarako, lehenik berogailua itzali eta zirkuituko ura hustu behar da. Ondotik, ur hotz eta beroko hodiak ponpa bati lotuak, ura zabaldu behar da sistema guztitik, eta horrekin batera, karearen kontrako produktua uretan disolbatuta, hoderia barretik garbitzeko. Gero hodiak galdararekin lotu behar dira berriz, sistema piztu, eta erradiadoreen giltzak ireki behar dira, karearen kontrako produktua botatzeko. Azkenik, zirkuitua ur garbiz bete behar da, neguan berogailua erabili ahal izateko.



ZABORRARI BIZI BERRI BAT EMANEZ



Jakina da obrek hondakin ugari sortzen dituztela, baina, nora doa sortutako zabor guztia?

Eraikuntza jardueretan hondakin kopuru handiak sortzen dira, eta bakoitzaren jatorri, osagai eta arriskugarritasunaren arabera klasifikatzen dira horiek. Zenbait material oso toxikoak izan daitezke, uralita kasu, amianto baitu. Horrelako kasuetan, protokolo espezifikoak dituzten baimendutako enpresek bildu eta tratatu behar dituzte.

HONDAKIN MOTAK

Lanetan sortutako hondakinak lau talde nagusitan banatzen dira. Lehenbizikoak, **hondakin arriskutsuak** edo substantzia arriskutsuak dituztenak, baimendutako zabortegetara eraman behar dira. **Hondakin bizigabeak** ez dira arriskutsuak, baina ez dute aldaketa fisiko, kimiko edo biologikorik jasaten eta ez dira go-goan hartzen berrerabilnerako. **Baliogarriak** diren hondakinak, aldiz, beste modu batean erabiltzeko aukeratuak eta bereiztuak izan daitezke; harria, hormigoia, morteroa... Azkenik, **hondakin berrerabilgarriak**

beste lanetan erabiltzen dira.

Estatu mailan, 30-40 tona zabor inguru sortzen dira urtean.

Zaborraren % 80 birziklagarria da; horretatik % 35 agregakin berriak egiteko erabiltzen da, hau da, errepideen oinarriak egiteko, zangak betetzeko, bideak egiteko... gainerako % 45 kudeatzailer espezializatuek tratatzen dituzte.

DB RECICLAJES INDUSTRIALES
BALDA DECONS
Txatar-bilketa
Edukiontzia enpresen zerbitzura
Egiturazko eraispinak eta eraispin mekanikoak
948 600 169 • balda@decons.es

ISOLAMENDUAK
ISOLAGOIEN
 AISLAMIENTOS
ISOLAGOIEN
647 913 740 ALTSASU - NAFARROA

Xurgapen zentralizatua eta aireztapena
ASPILAN
Tejeria kalea, 31 | 31809 Ziordia
948 468 109 | 609 337 086
www.aspilan.com



ASEGURURIK HOBERENA NORBERAREN BEHARRETARA EGOKITZEN DENA

Komeni da polizan sartuta dauden estaldurak zeintzuk diren egiaztatzea eta salbuespenak argi izatea, ezbehar bat gertatzen denean ezustekoa bikoitza izan ez dadin

Etzeko aseguruak da berezitasun, estaldura, klausula eta modalitate gehien dituen polizetako bat. Horregatik, ez da nolanahiko erronka aseguru egokia kontratatzea. Bada, ordea, huts egiten ez duen aholku bat: aseguruak hobereena, norberaren beharretara egokitzen dena da eta, horretarako, aseguruaren atzean dagoen letra xehea irakurtzen ikasi beharko dugu.

Lehenbiziko pausoa, norberaren beharrik zeintzuk diren aztertzea izanen da. Kontuan hartu behar dira: etxebizitza mota, kokapena, etzeko ondasunen balioa eta egon daitezkeen arriskuak. Zer eta nola babestu nahi dugun jakin behar dugu eta aseguru etxeek eskaintzen digutenarekin bateratu.

ESTALDURAK

Aseguruak barne hartzen dituen estaldurak ziurtzat jo ordez, komeni da egiaztatzea eta zalantzen aitzinean galdetzea: espero ez diren ezustekoak ekiditeko modu bakarra baita. Edozein gorabehe-

ra estaltzen dute? Zer ondasun babesten dituzte? Eta zer gertatzen da hirugarrenei eragiten dizkiegun kalteekin? Aseguru agenteari egin behar zaizkion galderetako batzuk dira horiek. Funtsezkoa da kontratua arretaz irakurtzea, zer dagoen estalita eta zer ez dagoen sartuta ongi ulertzeko. Poliza batzuek kalte edo gertaera jakin batzuk salbuets ditzakete edo baldintza zehatzak jarri, beraz, garrantzitsua da ongi informatuta egotea.

Estali ohi diren kalteen artean: sutea, leherketa, urak eragindako kalteak, lapurreta, kalteen erreklamazioa eta erantzukizun zibila daude. Garrantzitsua da etzeko aseguruak estaldura horiek barnean hartzen dituela ziurtatzea. Konpainia bakoitzak bere kalte ordainen baremoa ere izaten du, baita mugak, klausula zehatzak, frankiziak eta salbuespen bereziak ere. Komeni da baldintza horiek guztiak zeintzuk diren argi izatea eta egiaztatzea babestu nahi diren etzeko ondasunen balioa estal-

tzeko nahikoak direla. Patxadaz hartu, guztia ongi irakurri eta hainbat aukera mahai gainean jarri.

GAUZEN BALIO ERREALA

Kontuz ibili behar da baloratutako ondasunekin. Aseguruak ordaintzerakoan diru pixka bat aurrezteko, jendeak joera izaten du etxean dituzten ondasunen balioa zertxobait baxuagoa dela esateko. Hori, ordea, norberaren kalterako izan daiteke etorkizuneari. Balio aseguratua gauzen balio erreala baino txikiagoa denean, kalte ordaina horren araberakoa izanen baita.

Aseguru etxe batzuk, Kontsumoko Prezioen Indizea kontuan hartu eta kapitalen balioa urtero beritzea aukera ematen dute. Horrek ziurtatzen du aseguratuta dauden ondasunen balioa eguneratuta dagoela, inflazioa kontuan hartuz.

ERANTZUTEKO AHALMENA

Ezbehar bat gertatzen denean neurtzen dira aseguru etxe baten erantzuteko ahalmena eta ematen duen zerbitzuaren kalitatea zer nolakoak diren. Arreta berehala hartu nahi izaten dugu eta, horretarako, baliagarria izaten da



aseguru etxeak arretarako telefono zenbaki bat 24 orduz erabilgarri duela jakitea. Larrialdietarako eta konponketetarako zerbitzu hornitzaile fidagarrien sarea duela jakiteak ere lasaitasuna ematen dio bezeroari.

kura jartzen dituztenak ere, hala, kasuaren arabera aukera bat edo bestea hauta dezakete.

ETA ASEGURUA ALDATU NAHI BADUZU?

Ezinbestekoa izanen da oraingo polizaren epe muga zein den jakitea. Epe hori bete baino hiru hilabete lehenago gaia esku artean hartzea gomendatzen dute adituek. Kontsultatu eta eskatu aurrekontuak hainbat konpainiei. Eskaintzak bilduta, balorazioa egin eta konpainiaz aldatzeko asmoa dutenek egungo aseguratzaileari hilabete lehenago jakinarazi beharko diote.

KALTE ORDAINAK NOLA?

Aseguru etxeak kalte ordainak nola kudeatzen dituen jakitea ere komeni da. Konpainia batzuek kalteak zuzenean konpontzeko aukera eskaintzen dute beren hornitzaileen bitartez. Beste batzuek, berriz, konpentsazio ekonomikoa eskaintzen dute. Eta badira, bi aukerak bezeroen es-



Axlor eta Garazi
2. Eko bikotea

Etxea, etxe goxo eta efizientea.

Inbertitu efizientzian.

Hobetu zure etxebizitza; izan dadila efizienteagoa, jasangarriagoa eta aurrezten lagun dieza zula. Sartu gure simulatzailean eta ezagutu zer hobekuntza egin ditzakezun energiaren aldetik, zer laguntza eta kenkari dituzun eskura eta zer finantzaketa behar duzun.



birgaitzeeraginkorra.laboralkutxa.eus

Bada beste modu bat





Zuk bakarrik eraiki dezakezu zure bizitza, guk lagunduko dizugu bizitza garatzeko tokia bilatzen.

 La Paz, 6 - Bajo
31800 Alsasua-Altsasu
948 468 077 / 690 206 894

 AGENTE OFICIAL DE LA PROPIEDAD INMOBILIARIA

www.inmobiliaria-agurain.com



NOLA ANTOLATUKO DUT ETXEA?

Antolaketari dagokionez, etxe txiki bat izateak abantailak eta desabantailak ditu. Alde batetik, ez dugu hainbeste lan egiteko etxebizitza zabalago batekin gertatuko litzatekeen bezala, eta errazagoa da gauza bakoitza non jarri nahi duzun argi izatea. Baina, bestetik, argi dago askoz selektiboagoak izan behar dugula gera gaitzkeen objektuak aukeratzeko orduan, eta, gainera, askoz eraginkorragoak izan behar dugula eskura dugun txoko bakoitza aprobetxatzeko.

Ondorioz, etxe txiki baten antolaketak bere trikimailu eta sekretu propioak ditu. Beraz, artikulatu honetan horietako batzuk eskainiko dizkizugu, gela bakar bati ere aurre egin ez diezaiozuen, nahiz eta hau txikia izan.

1. Ahaztu gauza asko etxe txiki batean gordetzeaz: Ongi pentsatu! Bila zabiltzan ordena lortzeko, zure egunerokoan benetan erabiltzen ez duzun guztia garbitzea izango da lehen urratsa.

2. Aprobetxa itxazu itxuraz praktikoa ez diren txoko eta espazioak: irudimen pixka batekin, lekuri susmagarrienei etekina atera ahal izango diezu. Eta begiratu zure etxebizitzak dituen txoko edo hutsune guztiak, oso aukera interesgarriak eskain baititzake. Adibidez, non jarri aterki ontzi bat, zapata gordeleku bat, arropa gordetzeko saski bat edo artxibatzeko armairu praktikoa bat.

3. Aukeratu L itxurako sofa: kuxin on batzuekin, ez duzu erosotasunik sakrifikatuko eta metro karratu batzuk irabaziko dituzu.

4. Korridoreak ere kontatzen du: liburuak, arropa, zapatak, etb jartzeko apalak edo armairu txikiak jar ditzakezu.

5. Altzari funtzionalak: bilatu praktikoa dena, ohe kanape bat kutxatila ezin hobea bihurtzeko normalean erabiltzen ez dituzun objektu asko gordetzeko.



6. Bertikaltasunaren aldeko apustua: zenbat eta altuagoak izan altzariak, orduan eta metro karratu erabilgarri gehiago aurreztuko dituzu. Gero, saiatu goiko aldeetan gehien erabiltzen dituzun gauzak ez gordetzen.

7. Armairuak, ahal dela, sartuta: zure etxeak ez badira mota horretakoak, pentsa ezazu eraberritze bat egin behar duzula. Berehala errentagarri bihurtzen den inbertsioa izaten da.

8. Erabilera eremuak eta ingu-

runeak mugatzen ditu: Antolaketaren errazago egiteko ideia on bat gure etxearen eremuak ondo mugatzea da. Adibidez, terraza bat badugu, irakurtzeko eta atsedentatzeko espazio bihurtzeko dezakegu, udarako egongela gisa. Bitartean, egongela mahaitxo bat jar dezakegu, eta aisialdirako beste gune batetik bereizi (telebista, musika, irakurtzea, etab.), alfombra baten edo altzarien koparen estrategiko baten bidez. Izan ere, giro bakoitza ondo definituz gero, gero errazagoa izango da dena bere lekuan jartzea

eta ordenatzea.

9. Zaindu argiztapena: argi naturalak giroa errazten du eta tonu leunek apaintzen dute. Sentsazioa zabalagoa izango da.

10. Sukaldaritza minimalista: hemen espazioa garrantzitsuagoa da. Saiatu altzariak praktikoa izan daitezen eta apainduta egon ez daitezen. Diseinu garbikoak edo heldulekuri ez duten zentimetro batzuk irabazten lagunduko digute, eta horiek, egia esan, oso praktikoa izango dira.





PARETAK MARGOTZEKO AZKEN JOERAK

Barnealdeko paretak margotzeko orduan, aukerak amaigabeak dira eta zaila izan daiteke koloreak aukeratzea. Horretarako laguntza behar baduzue, hemen dituzue aurtengo joerak. Joan den urtean bezala, kolore suabeak eta neutroak izanen dira nagusi interiorismoan aurtengo ere; atemporalak dira eta gelari elegantzia ematen diote. Besteak beste, hauek dira zenbait aukera:

Urdin hotza: Zerua, itsasoa... dudarik gabe, lasaitasuna transmititzeko kolorerik hoberena da urdina. Gainera, dekorazioaren arabera, estilo desberdinak lortuko ditugu gelan. Zuriekin eta egur kolore argiarekin, ukitu eskandinaviarra emanen diogu. Tonu ilunekin, estilo sofistikatu eta dramatiko lortuko dugu. Kolore argi eta beroek, berriz, energia emanen diote.



Gris argia eta beixa: Egongela eta logeletan bereziki, zabaltasuna eta argitasuna ematen diote espazioari. Gainera, konbinatzeko errazak dira eta erlaxatzen laguntzen dute. Hala ere, monotonia ekidite aldera, kolore biziagoekin erabil daitezke; hori suabea, berde freskoa, arrosa argia... Altzariei dagokienez, egurrezko altzari argiek eta xehetasun metalikoek dotorezia emanen diote gelari.



Lur koloreak: Marroia, kobrea, terrakota, beixa... kolore epelak dira, haien artean ederki konbinatzen dutenak. Zuri eta grisekin batera, estetika klasikoa eta dotorea lortuko dugu gelan, eta urre koloreko akaberek luxu eta sofistikazio ukitua emanen diote.





Tapizgintza,
gortinak
eta atsedena

659 86 62 60
Foru plaza, 2 - Altsasu
@logure_alsasu





648 143 615
ALTSASU



Pintura eta mikrosegmentua
Zaharberritzeak eta obra berria
Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe



NOLA ZAINDU ETXEKO ZERAMIKA?

Sukaldean eta komunean bereziki, zikinkeria azkar pilatzen da eta gomendagarria da bertako zeramika garbi mantentzea

Harria eta zeramika ezinbesteko materialak bihurtu dira dekorazioan, eta mota guzietako neurri eta koloreetan daude eskuragarri. Hortaz, etxeko ia gela guzietan erabil daitezke. Material iraunkorra da, baina horrek ez du esan nahi mantentze lanik behar ez duenik.

Eguneroko garbiketa erraza da: detergente edo xaboi neutroko koilarakada bat bost ur litroan nahastuak aski dira. Eskuila edo isatsa erabiltzekotan, hobe zurda leunekoa, azalean urradurarik ez egiteko. Alanbrezko espartzuak, adibidez, arrastoa uzten dio eta distira kentzen dio esmalteari. Ondotik trapu batekin lehortu behar da.

Produktuak nahastean, kasu eman behar da, zeramika kalte-tuko ez dutela ziurtatuz. Egokiak ez diren produktuek kalte kimikoak sor ditzakete, azal porotsua utziz eta orbanak sortuz. Ezinbestekoa da fabrikatzailearen gomendioak segitzea.

Horrez gain, garrantzitsua da zeramika zikindu bezain laster garbitzea, denborarik pasatzen utzi gabe. Bestela, garbiketa prozesua zaildu egiten ahal zaigu. Zikinkeria kentzea lortzen ez badugu, disoluzioa minutu batzuek utzi ondoren igurtzi beharko dugu, eta gero trapu garbi batekin lehortu. Azkenik, gela ongi aireztatua mantentzeak zikinkeria pilatzea ekiditen du.





IRURA

MATERIALES Y COMPLEMENTOS DE CONSTRUCCIÓN

ERAIKUNTZA ARLOKO ETA BERRITZE LANETARAKO MOTA GUZTETAKO MATERIALAK DITUGU

Binilo zoruak, belar artifiziala, teilak, isolamenduak, velux leihoak, margoak, tximiniak, zeramikak, burdindegia, lur ijestuak, bainugeletako altzariak, manparak...





EGUNEROKOA AHAZTEKO ETA ERLAXATZEKO GELA

Komuna zaharberritzeak dirua eta denbora har dezake, baina obra handirik egin gabe berritasunak nahi dituztenek ere hainbat bide dituzte. Dena dela, azkeneko joerak ezagutzeak ez dizue kalterik egingen

DUTXA EDO BAINUONTZIA, ZUREA DA AUKERA

Dutxak gero eta garrantzia handiagoa du gure etxeetako bainu-geletan; egunero erabil dezakegu eta bainuontzia baino praktikoagoa da. Hortaz, gaur egun leku gehiago eskaintzen zaio dutxari, osagarri gehiagorekin eta dekorazio zainduarekin. Ur jauzi efektuko dutxa burua nagusitu da bereziki, dutxa eguneko momenturik lasaigarriena bihurtzen baitu, euri langar fin bat balitz bezala.

Hala ere, bainuontzia ez da iraganeko kontua; bainua da egun gogor baten ondotik erlaxatzeko

modurik onena. Horretarako espazioa baldin badugu, aukera ezin hobe da, batez ere bi lagun sartzen diren bainuontzi handi batekin, momentu intimo hori nahi dugunarekin partekatzeko. Bainuontzi batzuk dotoretasun handia eman diezaiokeite komunari, marmolezkoek batez ere.

INGURUMENA ETA LANDAREAK

Jasangarritasuna bainugelara ere ailegatu da, horregatik, energetikoki eraginkorrak diren sistemak nagusitzen ari dira, zoru erradiatzaileko berogailuak eta ura aurrezteko sistemak, adibidez.



Baina natura zaindu eta gure etxera ekartzeko ahaleginetan, landareak dira dekorazio elementuen errege erreginak; bizitasuna ematen dute eta airea garbitzen laguntzen dute. Bainugelari dagokionez, kontuan izan behar da giro hezean ongi moldatzen diren landareak au-

keratu behar direla.

MINIMALISMOA ESTILOAN ETA KOLOREAN

Estilo tradizionalekoak baino, komun modernoak dira aukeratuenak gaur egun; zabalak, erosoak eta funtzionalak. Horren adibide

garbiak dira paretari lotuta eta lurra ukitzen ez duten komunontzi eta konketak edo altzarietan sartutako kaxoi eta apal ordenatzaileak. Gama kromatikoari dagokionez, zuriak, grisak eta beixak segitzen dute bainugelan nagusi izaten, espazio neutro, lasai eta isila lortzeko helburuarekin.

biohaus 

Eraikuntzarako material jasagarriak

Naturarekin bat eraiki

Banatzaille ofiziala:

GUTEX 

WOLF  **pro clima** 

lbarrea pol. ind. 31800 Altsasu - biohaus@biohaus.es - 948 564001





EZAGUTZEN DUZU BIDET KOMUNONTZIA?

Garai batean bidetak etxeko komunetan ikustea ohikoa bilakatu bazen, gerora hauen erabilera urriak hauek gutxitzea ekarri zuen. Orain itzuli dira baina komunontziaren barruan kokatuta. Eta zer da bidet komunontzia? Komunarako bidet bat norberaren garbiketarako gailu bat, komunean zuzenean integratzen dena, eta ohiko komuneko paperak baino esperientzia eraginkorragoa eta erosoagoa eskaintzen duena. Paperaren mende egon beharrean, komunerako bidet batek ura erabiltzen du bainua hartuz atzeko eremua garbitzeko. Horrek garbiketa osoagoa emateaz gain, larruazalarentzat leunagoa eta ingurumenarekiko begirunetsuagoa ere izan daiteke, paperaren beharra murrizten baitu.

Osasun profesionalek ordu batean edo bitan instalatu ohi dituzte bidet komunak. Zure bainuaren edo komunaren egoeraren arabera, baliteke ur horniduran eta elektrizitate horniduran doikuntza txikiak egin behar izatea. Komunontzi konbentzional baterako ur hargune bat ere behar da, eta horrek esan nahi du ur hartune bat izan beharko lukeela. Konexio elektrikoak hormaren atzean instalatu ohi dira, bainu eta komun modernoetako araudiaren arabera. Bestela, energia hornitu daiteke komuneko entxufe konbentzionalen bidez. Aukera horietako bat ere ez baduzu, kanpoko ur hornidura edo korrante hartune bat erabil dezakezu bainugelatik gertu.



Sakanan baduzu informazioa non eskatu, hainbat profesional dauzkazu zure eskura, zure proiektuaren arabera egokituko direnak.



948 460 027
Utzubar Industrialdean (ARBIZU)
www.galartxa.com
galartxa@galartxa.com



AURTENGO JOERA INSPIRATZAILEAK

Sukaldea etxe modernoan bihotza da, eta 2025eko sukaldeetako joerek garrantzi hori nabarmentzen dute. Elikagaien ongizateari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa den bezala, sukaldeen diseinuan benetakotasunera eta denboraz kanpoko baliotara itzultzen ari gara. Sukaldea une berezia bizitzen ari da. Etxeak apaintzeko joera interesgarrietako batzuk sukaldeetan ematen ari dira, hain zuzen ere. Izaera handiko akaberetatik hasi eta armairu deigarrietaraino, sukaldeak erritmo bizian garatzen ari dira. 2025ean zehar, diseinu pertsonalizatuarentako bilakaera nabarmena ikusiko dugu, sukaldea sukaldatzeko, jateko eta gizarteratzeko gela paregabe bilakatuko dutenak.

GAINAZAL JARRAITUAK

2025eko sukaldearen diseinuan, zoruen eta hormen artean isurtzen diren gainazal jarraituak nabarmentzen dira. Junturarik gabeko estetika hori ezin hobea da mantentze lan eta garbiketa handia behar duten sukaldeentarako. Zenbat eta juntura gutxiago egon, orduan eta higienikoagoa izango da emaitza.

TESTURA NATURALA

Ehundura protagonista izango da aurten ere sukaldeko horma eta zoruen akaberetan. Zeramikazko piezak dituzten patroietan edo erliebe sotiletan, estetika horrek itxura abegikorragoa eta naturalagoa emango du. Gainera, harri naturalak birsortzen dituzten gainazal horiek (trabertinoa, adibidez) zoladura gisa erabiltzeak horiek mantentzea errazten du.

AKABERA METALIKOEN KONBINAZIOA

Metalaren ezaugarri paregabeek estilo berezia ematen diete sukaldeei aurten. Efektu hori lortzeko, hainbat metal nahasten dira askotariko elementuetan, hala nola armairuetako ateetan, argiztapenean, hormetako estalduran metalezko mosaikoekin, etxetresna elektrikoekin edo altzari elementuekin. Metalak ezaugarri higienikoa eta islatzailea du, eta diseinuarekin leundu daiteke.

SUKALDEKO ZIPRIZTIN-DEGIETARAKO IDEIAK

2025erako sukaldearen diseinuaren joerekin ideia berriak aurkezten dituzte zipriztin apaingarriak da-



gokienek. Horrek harraskaren atzeko alde eta egosketa eremua hartzen ditu barne, junturarik gabeko formatu handiko gainazalaren arreta handiagoa jarritz. Zipriztinaren diseinuak kurbak eta dekorazio profilak izango ditu. Joera horretarako bereziki egokia da marmol efektuko formatu handiko portzelanikoa.

KE KANPAIAK

Sukaldeko aireztapena ez da aspergarria izango 2025ean. Sutegiak eta bitrozeramikazko/indukzioz-

ko plakak arreta gune bihurtuko dira ke kanpai deigarriei esker. Sukalde handien diseinuetan arku integratuak eta horma hobiak daude. Sukalde txikietan ere, 2025eko joerek kanpai metalikoak dituzte, estilo landatarrekoak, kobrezkoak edo igeltsu pintatuzkoak. Bilatzen den alderdia landa sukaldea da, iraganean bezala kozinatze eta laboratzeko funtzionaltasunarekin.

GOSALTZEKO TXOKOA

Gosari txokoa aurten ere modan

dago barraren alternatiba gisa, daukagun azaleraren arabera. Espazio hori sukaldeko izkina batean sar daiteke, eta aulkiak eta aulkiak konbinatzen ditu. Bestalde, mahaia altuera erregularrean jartzen da, hau da, lurretik 71 eta 76 cm bitartean. Gosari txokoek esperientzia desberdina ematen diete jantokidun sukaldeei. Espazio informal bat da, gosari barra bezalakoa, vintage atmosfera bat eraikitze gaitasuna, familia bazkari lasaia eta aurrez aurrekoak gozatzera gonbidatzen duena.

salmen etxea

Sukaldeak

Tximiniak

Zeramika eta laminatuak

Komunak

Armairu enpotratuak

Logelak eta egongelak



Proiektu bakoitza
etxebizitza berri bat
Gerturatu gure dendara!

dica

LACUNZA

PORCELANOSA

ATEMPORAL

iip

KYRYA

DUSCHOLUX

TRES